



hilotzen  
lapurra

R. L. Stevenson

itzulpena:  
Izaskun Etxebeste Zubizarreta



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

R. L. STEVENSON

# hilotzen lapurra

The Body Snatcher

ITZULPENA:

Izaskun Etxebeste Zubizarreta

Urte guztian arratsero esertzen ginen laurok Debenham-eko George ostatuko salatxoan: ehorztetxeko zuzendaria, tabernako nagusia, Fettes eta ni neu. Zenbaitetan izaten zen jende gehiago ere, baina haizea gogor ibili ala ez, izan euri ala elur ala izotz, gu laurok han egongo ginen bakoitza geure besaulkian jarrita. Fettes eskoziar agure edale bat zen, ikasketak bazituena inondik ere, eta ondasun zenbaiten jabea ere bazena, lanik egin gabe bizi baitzen. Urteak ziren Denbenhamera etorri zela, artean gazte zenean, eta, bertan bizitzen jarraitze hutsagatik, herriko seme gisa hartua izatera iritsi zen. Haren gamelu-ilezko kapa urdina herriko zaharkin bat zen, elizako kanpandorra bezala. Georgeneko salako bere lekua, elizara ez joateko ohitura eta fama txarreko bere bizio zahar eta lizunak kontu ezagunak ziren Debenhamen. Bazituen iritzi erradikal lauso batzuk eta fedegabetasun ilaun halako bat, noizean behin azaltzen zituenak, eta azpimarratzen, mahai gainean kolpe baldarrak emanez. Rona edaten zuen, bost baso arratsero, eta Geogenera egunero egiten zuen bisitaren denbora gehiena eserita ematen zuen, basoa eskuineko eskuan, malenkonia alkoholikoz okituriko egoera batean. Doktorea deitzen genion, medikuntza kontuetan nolabaiteko ezagutza ba omen zuelako, eta larrialdiren batean, antza, jakin zuelako berna bat bermatzen edo bihurritu baten hantura jaisten, baina kontu gutxi horiez gain, ez genekien ezer haren izaeraz edo aurreko bizitzaz.

Neguko gau ilun batez —bederatziak jo zituen ostatuko nagusia gurekin bildu baino zerbait lehenago—, gaizkitutako gizon bat izan genuen Georgenean; inguru hartako lur-jabe aberats bat buruko odol-kolpe batek jo zuen Parlamenturako bidean zela, eta gizon ospetsu honen Londresko mediku are ospetsuagoari telegrafoz eskatu zitzaion haren oheburura etortzeko. Lehen aldia zen halako zerbait gertatzen zela Debenhamen, burdinbidea zuela gutxi iritsi baitzen, eta hala astindu gintuen guztiok gertakariak.

—Etorri da —esan zuen nagusiak, pipa bete eta piztu ondoren.

—Etorri da, nor? —esan nuen nik—. Medikua?

—Horixe eta bera —erantzun zuen gure ostalariak.

—Nola du izena?

—Macfarlane doktorea —esan zuen nagusiak.

Fettes hirugarren zurruta amaitzen ari zen, ergelaren moduan horditua, oraintxe buruaz baietz esanez, oraintxe ingurura noraezean begira, baina azken hitz horrekin bazirudien esnatu egin zela, eta bitan errepikatu zuen “Macfarlane” izena, aski geldiro lehen aldian, baina bat-bateko zirraraz bigarreanean.

—Bai —esan zuen nagusiak —hori da bere izena: Wolfe Macfarlane doktorea.

Fettesi kolpetik joan zitzaion mozkorra: begiak ernatu zitzaizkion, ahotsa garbitu, zolitu eta sendotu, eta irmo eta serio mintzatzen zen orain. Zur eta lur geratu ginen denok aldaketarekin, gizon bat hilen artetik etorri balitzaigu bezala.

—Barka, arren —esan zuen—, uste dut ez naizela oso adi egon zuen hizketaldiari. Nor da Wolfe Macfarlane hori?

Eta gero, nagusiak zioena entzundakoan:

—Ez da posible, ezin da bera izan —erantsi zuen—, eta halere gustura ikusiko nuke buruz buru.

—Ezagutzen al duzu, doktore? —galdegin zuen ehorztetxeko zuzendariak, txunditurik.

—Jainkoak libra nazala! —izan zen erantzuna—. Izena, dena den, ez da arrunta; lanak ditu pentsatzeak bi badirela. Esadazu, nagusi, adindua al da?

—Tira —esan zuen ostalariak— ez da gizon gaztea, hori seguru, eta ilea zuria du, baina zu baino gazteagoa dirudi.

—Zaharragoa da, halere, urte batzuk zaharragoa. Izan ere... —mahai gainean zaplada bat joz— rona da nire aurpegiak erakusten duena, rona eta bekatuak. Gizon honek agian kontzientzia kontentaeraza izango du, eta digestio onak. Kontzientzia! Neuk esatea ere! Zuek pentsatuko duzue ni kristau zahar, on eta zintzo bat izan naizela, ezta? Bada ez, ez naiz izan; ez nintzen sekula izan kontu horietara emana. Voltairek berak irentsiko zituzkeen nire galtzetan egon izan balitz, baina nire burua... —kasko soilduan kolpetxo zaratatsu bat emanenez—, argi eta bizkor nuen nik burua, eta gauzak ikusi nituen, baina ez nuen inolako ondoriorik atera.

—Mediku hau ezagutzen baduzu —adieraztera ausartu nintzen, etenaldi aski nekagarri baten ondoren—, esango nuke ez duzula hari buruz nagusiak duen iritzi on bera.

Fettesek ez zidan jaramonik egin.

—Bai —esan zuen, bat-bateko tinkotasunez— buruz buru ikusi behar dut.

Beste etenaldi bat egon zen; gero ate bat gogor samar itxi zuten lehen solairuan, eta urratsak entzun ziren eskaileretan.

—Medikua da —egin zuen oihu nagusiak—. Zoaz bizkor eta harrapatuko duzu.

Bi urrats baino ez zeuden sala txikitik George ostatu zaharreko ateraino; haritzezko eskailera zabala kalean amaitzen zen ia; atalasearen eta azken eskailera-mailaren artean alfonbra turkiar batentzako beste lekuri ez zegoen, baina espazio txiki hori distiratsuki argiztatua egoten zen arratsero, ez soilik eskailera gaineko argiari eta ostatu-izenaren azpiko farol handiari esker,

baizik baita tabernako leihoari zerion argitasun goxoagatik ere. Honela, Georgenea ederki iragartzen zen kale hotzetik pasatzen zirentzat. Fettes balantzarik egin gabe joan zen sarrerara, eta gu atzean geratu ginen ikustera nola egiten zuten topo bi gizonek "buruz buru", bietako batek esan bezala. Macfarlane doktorea gizon ernea zen eta kementsua. Ile zuriak nabarmendu egiten zion begitarte zurbil, lasai eta, era berean, indartsua. Dotore jantzita zihoan belarterik onenarekin eta lihorik zurienarekin, eta urrezko erloju-kate handi bat eta material balios bereko eskumutur-botoi eta betaurrekoak zeuzkan. Tolestura zabaleko gorbata bat zeraman, zuria ttantto lilekin, eta besoan ilezko bidaia-beroki bat. Ezbairik gabe urteek ederki ematen zioten, oparotasuna eta errespetua zerizkion, eta kontraste harrigarria egiten zuen ikusteak gure moxkorra —burusoil, zikin, zaldartsu eta gamelu-ilezko kapa urdin zaharra soinean— haren parean jarrita eskaileraren behealdean.

—Macfarlane! —esan zuen ahots ozen samarrean, gehiago zirudiela mezulari bat adiskide bat baino.

Mediku ospetsua kolpean gelditu zen laugarren eskailera-mailan, agurraren konfiantza-tonuak harritu eta duintasuna nolabait eraso balio bezala.

—Toddy Macfarlane! —errepikatu zuen Fettesek.

Ia balantza egin zuen Londreskoak. Begirada ezin bizkorrago bat bota zion aurrean zuen gizonari, atzera begiratu zuen ikaratu antzean, eta gero harridurazko xuxurla batean esan zuen:

—Fettes! Zu!

—Bai, ni! —erantzun zion besteak—. Neu ere hilik nintzela uste al zenuen? Ez da horren erraza gure ezaupidea etetea.

—Zaude isilik! —deiadar egin zuen medikuak—. Ixo! Ixo! Topaketa hau hain da ustekabekoa... Ikusten dut zabartua zaudela erabat. Egia esan, hasiera batean ez zaitut ezagutu ia; baina asko pozten naiz, asko pozten naiz aukera hau izateaz. Gaur-gaurkoz "kaixo, zer moduz?" eta "adio" batera esan beharko ditugu; zalgurdia zain dut eta ezin dut trena huts egin, baina eman behar didazu... ikus dezadan... bai... eman behar didazu zure helbidea, eta ziurtatzen dizut laster izango duzula nire berri. Zerbait egin behar dugu zure alde, Fettes. Badirudi semaikorik batere gabe zaudela, baina konpondu behar dugu hori "garai zaharrak gogoan", lehen afaritan kantatzen genuen bezala.

—Dirua! —oihu egin zuen Fettesek—. Zure dirua! Zuk eman zenidan dirua han egongo da, euripean harrika bota nuen leku berean.

Macfarlane doktoreak lortu zuen ordura arte nolabaiteko nagusitasunez eta segurtasunez mintzatzea, baina ezezko biribil haren ezohiko indarrak hasierako nahasmendura eraman zuen atzera.

Imintzio oso itsusi bat azaldu zen, eta desagertu gero, haren begitarte agurgarri ustekoan.

—Adiskide maitea —esan zuen—, nahi duzun bezala; ez zen nire asmoa zu iraintzea. Ez nuen zure aferetan sartu nahi, baina nire helbidea utziko dizut, halere.

—Ez dut ezertarako nahi. Ez dut ezagutu nahi babesten zaituen teilatupea— eten zuen besteak—. Zure izena entzun nuenean, beldur nintzen zeu ote zinen; jakin nahi nuen ea baden, azken buruan, Jainkorik. Orain badakit ez dela. Alde hemendik!

Fettes alfonbraren erdian zegoen oraindik, eskaileraren eta sarreraren artean, eta Londresko mediku jaunak nahitaez egin behar zuen urrats bat alde batera, handik ihes egiteko. Agerikoa zen umiliazio honetan pentsatze hutsak kolokan jartzen zuela. Zurbil bazegoen ere, distira arriskutsu bat ageri zuen betaurrekoetan; baina, zer egin erabaki ezinik zegoela, ohartu zen zalgurdiaren gidaria arretaz ari zela zelatatzen kaletik eszena bitxi hura, eta, aldi berean, begia bota zigun salako taldetxokooi, denak tabernaren zoko aldean pilaturik. Horrenbeste lekuko aurrean ikustean, handik berehala hanka egitea deliberatu zuen. Makurtu egin zen Fettesen ondotik pasatzeko, hormako oholtzadura bizkarrarekin igurtziz, eta ate aldera jo zuen ziztu bizian, suge baten antzera. Baina haren estualdia ez zen oraindik erabat amaitu, zeren, ondotik pasatzerakoan, Fettesek besotik heldu eta hitz hauek bota zizkion, ahopean, baina hala ere izugarri garbi:

—Ikusi al duzu berriro?

Londresko mediku jaun aberatsari garrasi ozen bat atera zitzaion, oiuhu zoli eta ito bat; galdera bota zionaren ondotik tximista bezala pasa, eta, eskuak buru gainean zituela, ihesari eman zion, lapurretan harrapatu balute bezala. Gutako bati mugimendu bat egitea otu zitzaionerako, zalgurdia bazihoan triki-traka geltokira bidean. Eszena hura amets bat bezala aienatu zen, baina amets hark benetako frogak eta aztarnak utzi zituen. Urrezko betaurreko ederrak hautsita topatu zituen neskameak hurrengo egunean atari aurrean, eta arrats hartan bertan tabernako leiho inguruan egon ginen denok zutik arnasa etenda, eta Fettes gure ondoan, edan gabe, zurbil, eta adorea begiradan.

—Jainkoak gorde gaitzala, Fettes jauna! —esan zuen tabernako nagusiak, lehena izan baitzen bere onera etortzen—. Zer arraio da hau guztia? Bai gauza bitxiak esaten aritu zarena!

Fettes gure aldera itzuli zen, eta banan-banan begiratu zigun aurpegira.

—Ea gai zareten mihiari eusteko —esan zuen—. Ez da kontu ona Macfarlane delako honen aurka jartzea; hala egin duten guztiak beranduegi damutu dira gero.

Eta gero, hirugarren basoa amaitu gabe, eta, are gutxiago azken biak zerbitzatu zain geratu gabe, agur esan zigun eta martxa egin zuen, ostatuko farolaren argipean, gauaren iluntasun beltzean barrena.

Beste hirurok geure jarlekuetara itzuli ginen, beheko su ederra piztuta eta lau kandela hasiberri zituen salara, eta, gertatu zena erreparatu ahala, hasierako ezustekoak eragindako hotzikara laster bilakatu zitzaigun jakin-min kitzikagarria. Berandu arte egon ginen; hartan baino beranduago irten ginen egunik ez dut ezagutu George zaharrea. Alde egiterako, gutako bakoitzak bazuen teoria bat, frogatzera behartua zegoena; eta ez zen mundu honetan guretzat premiazko beste egitekorik, ez bazen gure lagun gaitzetsiaren iragana miatzea eta Londresko mediku ospetsuarekin partekatzen zuen sekretua atzematea. Ez dut harroputz azaldu nahi, baina uste dut Georgeneko gainerako kideak baino esku hobea izan nuela istorio bat osatzea lortzeko; eta agian ez da beste inor bizirik geratzen zuei gertakari higuigarri eta naturaz kontrako hauek kontatu ahal izateko.

Bere gazte-denboran, Fettesek medikuntza ikasketak egin zituen Edinburgon. Bestek ez bezalako talentua zuen, entzuten duena bizkor jaso eta erraz bere egiten duenaren talentu klasea. Lan gutxi egiten zuen etxean, baina irakasleen aurrean atsegin, erne eta buruargi azaltzen zen. Berehala ohartu ziren arretaz aditzen zuen mutila zela eta aditutakoak ongi gogoratzen zituela; areago, lehen aldiz entzun nuenean harrigarria egin bazitzaidan ere, garai hartan planta onekoa zen, eta gustura zegoen bere itxurarekin. Bazen, urte haietan, unibertsitateaz kanpoko anatomia irakasle bat, hemen K letraz izendatuko dudana. Haren izena sobera sonatua bilakatu zen geroago. Izen haren jabea ihesi joan zen, mozorroturik, Edinburgoko kaleetan barrena, Burkeren exekuzioa txalotzen ari zen jendetza bere nagusiaren odola ozenki eskatzen ari zelako. Baina K jauna famaren gailurrean zegoen orduan; entzutetsua zen oso, bere talentuari eta trebetasunari esker, alde batetik, eta aurkari zuen unibertsitateko irakaslearen ezgaitasunari esker, bestetik. Ikasleengan bederen bete-beteko itzala zuen, eta Fettes sinetsirik zegoen —eta hala sinetsarazi zioten gainerakoek ere—, ospe meteorikoko gizon haren babesa lortuta, arrakastaren oinarriak ezarri zituela. K jauna, irakasle bikaina ez ezik, bon vivant-a ere bazen, eta prestakuntza zaindua bezainbeste maite zuen irudimen bihurria. Fettesek gaitasun bi-bietan zuen irabazia eta merezia haren begirunea, eta, bigarren ikasturterako, erdietsia zuen haren eskoletan bigarren irakasle edo laguntzaileorde postu erdiprofesionala.

Postu hori zela-eta, berari zegokion areto nagusiaren eta hitzaldi-gelaren zaintza. Bere erantzukizuna ziren instalazioen garbitasuna eta gainerako ikasleen portaera, eta haren egitekoen parte zen, era berean, eskola hilotzez hornitzea, eta haiek jaso eta zatitzea. Azken eginkizun hori kontuan harturik —oso gai delikatua zena, garai haietan—, disezio-gela zegoen kalezulo berean hartu zion ostatua K jaunak, eta, geroago, eraikin berean. Han, gozamen aztoragarritz beteriko gau baten ondoren, eskua oraindik dardaraz zuela eta ikusmena lausotua eta nahasia, neguko egunsenti aurreko ordu ilunetan jaikiarazten zuten ohetik mahaia hornitzera zetozen trafikatzailer moralgabe eta desesperatu haiek. Atea irekitzen zien herrialdeko txoko guztietan aspalditik fama txarra irabazia zuten gizon haiei. Laguntzen zien zama tragikoa garraiatzen, pagatzen zien ordain likitsa, eta, haiek alde egiterakoan, bakarrik geratu ohi zen giza gorpuzki ezatsegin haiekin. Eszena honen ondoren, ordubete edo biko



beste loaldi bat lapurtzera itzultzen zen, gaueko gehiegikeriak berdindu eta eguneko zereginetarako indarberritzera.

Ez zen gazte asko izango hura baino asaldagaitzagorik hilkortasunaren ikur artean biritza pasatzeak utzitako arrastoekiko. Burua giltzatua zeukan edonolako gogoeta orokorrak egiteko. Ez zen gai besteren patu eta halabeharren inguruan interesik erakusteko, bere desira propio eta anbizio makurren esklabo baitzen. Hotza zen, arina eta, azken batean, berekoa; bazuen gutxieneko zuhurtzia bat —gaizki esanda moraltasuna deitzen zaiona—, gizon bat hordikeria desegokitik edo lapurreta zigorgarritik aldentzen duen klase horretakoa. Gainera, maisuaren eta ikaskideen begirune-zantzuen irrikaz egoten zenez, ez zuen huts nabarmenik egin nahi izaten bizitzaren kanpora begirako alderdietan. Honela, oso pozik zegoen ikasketetan gailentzeagatik, eta egunero-egunero zerbitzu akasgabea eskaintzen zion K jaunari, hark begi bistan zuenean. Eguneko lanaren kalte-ordain gisa, doilorkeriaz beteriko egundoko gozaldiak hartzen zituen gauez, eta bien arteko oreka lortzen zuenean, “bere kontzientzia” deitzen zion organo hori asebeta agertzen zen.

Gorpuak lortzea etengabeko kezka zen bai berarentzat, bai maisuarentzat. Ikasgela jendetsu eta lanpetu hartan beti agortzeko zorian egoten zen lehengai freskoa, eta, horrela, berez desatsegina zen salerosketa-jarduna ondorio arriskutsuko mehatxu ere bihurtzen zen partaide guztientzat. Tratu horien gorabehera buruz galderarik ez egitea zen K jaunaren politika: “Haiek hilotza ekartzen dute, eta guk ordaindu egiten dugu” esan ohi zuen, quid pro quo esamoldearen aliterazioa astiro ahoskatuz. Eta, jarraian, lotsagaldu samar, “Ez egin galderarik” esaten zien bere laguntzaileei, “zuen lasaitasunerako”. Ez zen pentsatu ere egiten gorpuak krimen edo hilketa bidez etor zitezkeenik. Uste hori hitzez aipatu izan balitzaio, atzera egingo zuen izuak harturik bezala, baina K jaunaren hitzen arinkeria, halako gai serio baten gainean, gizalegearen aurkako ofentsa zen berez, eta, aldi berean, tentazioa harekin tratuan aritzen ziren gizonentzat. Fettes, esaterako, sarritan ohartzen zen gorpuen freskotasun nabaria. Atentzioa ematen zion, behin eta berriz, egunsenti aurretik etortzen zitzaizkion alproja haien itxura abaildu eta higuingarriak, eta bere baitako pentsamenduetan gauza batzuk besteen ondoan jarritz, maisuaren aholku zuhurtziagabeei esanahi immoral eta kategorikoegia egozten zien beharbada. Labur esanda, bere eginkizunak hiru adar zituela ulertzen zuen: ekartzen ziotena jasotzea, ordaintzea, eta, inolako krimen zantzurik bazen, ez ikusiarena egitea.

Azaroko goiz batez, isiltasun-arau honek proba gogorra jasan zuen. Haginetako min pairaezin batek gau osoan esna eduki zuen Fettes —logelan alderik alde ibiliz, pitzia kaiolatua bezala, edo bere burua ohe gainera amorrut boteaz—, eta, azkenean, oinazezko gau baten ondoren maiz izan ohi den lo sakon eta sosegurik gabekoak hartu zuenean, adostutako seinalearen hirugarren edo laugarren errepikapen haserreak esnarazi zuen. Ilargia mehe zegoen, eta distiratsu; gaua ikaragarri hotza zen, haizea zebilen, eta antzigarra zegoen; hiria ez zen esnatu artean, baina ezin zehaztuzko asaldura batek jada iragartzen zituen egunaren zaratak eta zereginak. Profanatzailerak ohi baino beranduago etorri ziren, eta inoiz baino presa handiagoa ageri zuten alde egiteko. Fettesek eskaileretan gora argi egin zien, logaleak amorrutzen. Amets

batean bezala entzuten zituen haien irlandar ahots marmartiak, eta, salgai tamalgarria zakutik ateratzen zuten bitartean, erdi lo egon zen, sorbalda hormaren kontra bermatuta; bere buruari astindu bat eman behar izan zion gizon haiei ordaintzeko dirua aurkitzeko. Hori egin orduko, hildakoaren aurpegian pausatu zitzaizkion begiak. Asaldata egin zen; kandela gora jaso eta bi urrats gerturatu zen.

—Jainko zerukoa! —egin zuen oihu—. Hau Jane Galbraith da!

Gizonek ez zuten deus ere erantzun, baina ate aldera mugitu ziren astiro.

—Ezagutzen dut, bai horixe —jarraitu zuen—. Bizirik eta osasuntsu zegoen atzo. Ezinezkoa da hilik egotea; ezinezkoa da zuek hilotz hau bide onez lortu izana.

—Benetan, jauna, zeharo oker zabilta —esan zuen gizonetako batek.

Baina besteak bekozko ilunez begiratu zion Fettesi, eta lehenbailehen ordaintzeko eskatu zion.

Ezin zen mehatxu hura apaletsi edo arriskua esajeratu. Adoreak huts egin zion gazteari. Zenbait aitzakia bota zituen zezelka, adostutako dirua banatu zuen, eta bisitari gorrotagarri haiek alde egiten ikusi zituen. Haiek irten orduko ekin zion bere dudak egiaztatzeari. Zalantzarik uzten ez zuten dozena bat markaren bidez identifikatu zuen bezperan berarekin txantxak egiten ibili zen neska. Ileak laztu zitzaizkion haren gorputzean indarkeria zantzuak izan zitezkeen marka zenbait ikustean. Izuak hartu zuen, eta bere logelako babesera itzuli zen. Han, gogoeta luzean aritu zen egindako aurkikuntzari buruz: arretaz aztertu zuen K jaunaren aginduen egokitasuna eta, orobat, halako muntako kontu bat oztopatzeak lekarkiokeen arriskua, eta, azkenean, nahasmenduak larrituta, erabaki zuen bere zuzeneko nagusia zenari, doktoregaiari aholkua eskatu arte itxarotea.

Mediku gazte bat zen hura, Wolfe Macfarlane, ikasle tunante guztien gogokoena, buruargia, alproja eta goien graduraino eskrupulurik gabea. Atzerrian ibili eta ikasitakoa zen. Manera atsegin eta apur bat lotsagabeak zituen. Aditua zen antzerki gaietan, izotz gainean patinekin iaioa eta baita makilarekin ere golf-zelaietan; ausardia alai puntu batekin janzten zen, eta, haren ospeari azken ukitua eransteke, kalesa baten eta trosta-zaldi gihartsu baten jabe zen. Harreman estua zuen Fettesekin; izan ere, bien postuen hurbiltasunak nolabaiteko elkarbizitza egitea eskatzen zien; eta, gorpuak eskasten zirenean, Macfarlaneren kalesa hartuta landa-eremuan barna urrun joaten ziren biak, hilerri bakartiren bat bisitatu eta profanatzen zuten, eta, egunsentirako, disekzio-gelako atera itzultzen ziren harrapakinarekin.

Goiz hartan, ohi zuena baino goizxeago ailegatu zen Macfarlane. Fettesek entzun zuen eta eskailerara atera zitzaion, eta gertatutakoa kontatu zion bere larritasunaren iturria erakutsiz. Macfarlanek emakumearen gorputzeko markak aztertu zituen.

—Bai —esan zuen buruari eraginez—, susmagarria dirudi.

—Zer egin beharko nuke, orduan? —galdegin zuen Fettesek.

—Egin? —errepikatu zuen besteak—. Ezer egin nahi al duzu, ba? Zenbat eta gutxiago esan, orduan eta lasterrago konponduko dela esango nuke.

—Beste norbaitek ezagut dezake —kexatu zen Fettes—. Castle Rock bezain ezaguna zen neska hau.

—Espero dezagun hala ez izatea —esan zuen Macfarlanek—, eta inork ezagutzen badu..., bada, zuk ez zenuen ezagutzen, bai?, eta kito. Kontua da luzeegi irau duela gorabehera honek. Lokazti horri eragiten badiozu, mila demoniozko estualdian sartuko duzu K, eta zu zeu ere kinka larrian egongo zara. Eta baita ni ere, horretara ezker. Jakin nahiko nuke zer itxura emango lukeen gutako edonork, edo zer demontre esan beharko genukeen gure alde, edozein epaimahairen aurrean deklaratu beharko bagenu. Niretzat, badakizu, gauza bat da egiazkoa: praktikaren aldetik begiratuta, gure hilotz guztiak eraildako jendearenak direla.

—Macfarlane! —egin zion oihu Fettesek.

—Tira, gizona! —erantzun zion besteak erdeinuz—. Zeuk susmatu izan ez bazenu bezala!

—Susmatzea gauza bat da...

—... eta frogatzea beste bat, bai, badakit; eta zuk bezainbeste sentitzen dut hau guztia honaino heldu izana —esan zuen bere makilarekin hilotzari kolpetxo batzuk emanaz—. Orain, ez aitortzea da daukadan aukerarik onena; eta ez —erantsi zuen hotz-hotzean—, nik ez dut aitortzen. Zuk egin dezakezu, hala nahi baduzu. Nik ez dizut esango zer egin behar duzun, baina uste dut eskarmentu aski duen edozein gizonek jokatu lukeela nik bezala; eta, gehiago esango nuke, iruditzen zait horixe dela K jaunak gugandik itxaroten duena. Galdera da ea zergatik hautatu gintuen gu biok laguntzaile gisa. Eta hau da nire erantzuna: ez zuelako kontakatilurik nahi.

Hitz egiteko tonu hura zen, aukera zitezkeen guztien artean, Fettes bezalako gazte baten gogoan eragiteko modu zuzenena. Macfarlaneren jokabidea jarraitzea onartu zuen. Neska dohakabe haren hilotzari disezioa behar bezala egin zitzaion, eta inork ez zuen iruzkinik egin, eta ez zirudien inork ezagutu zuenik ere.

Arratsalde batez, egun hartako lanak bukatuta, Fettes taberna ezagun batean sartu zen eta Macfarlane topatu zuen arrotz batekin eserita. Gizaseme txiki bat zen, oso zurbila, ilea oso iluna zuen eta begiak ikatza bezain beltzak. Haren hazpegiek adimena eta finezia iragartzen zuten, baina oso modu ahulean baino ez ziren antzematen haren maneretan, hurbilagoetik ezagutu orduko ikusten baitzen zakarra, hezibiderik gabea eta kirten hutsa zela. Gizon hark, hala ere, aginpide nabarmena zuen Macfarlanerengan: Pasha Handia balitz bezala ematen zizkion aginduak, sutan jartzen zen eztabaida edo atzerapen txikienaren aurrean, eta iruzkin

itsusiak egiten zituen obeditzen zionaren mirabekeriaz. Pertsona guztiz iraingarri honek berehala izan zuen Fettes begiko, tragoetara gonbidatzen zuen etengabe, eta bere iraganaz ezohiko sekretuak kontatzeko ohorea egiten zion. Aitortu zizkionen hamarretik bat egia izatera, alproja puska nazkagarria zen, eta halako eskarmentu handiko gizon baten arretea pizteak gaztearen harrokeria lausengatzen zuen.

—Tipo makur samarra naiz neu ere —bota zuen arrotzak— baina Macfarlane hartarako jaioa da... Toddy Macfarlane deitzen diot nik. Toddy, eskatu beste trago bat zure lagunarentzat.

Edo geroxeago:

—Toddy, jaiki hortik eta itxi atea. Toddyk gorroto nau. O, bai, Toddy, horixe gorroto nauzula!

—Ez deitu niri izen arraio horrekin —orero egin zuen Macfarlanek.

—Hara! Entzun honi! Ikusi dituzu inoiz mutikoak laban-jaurtiketa jokoan? Horixe bera egin nahiko luke honek nire gorputz osoan —gaineratu zuen arrotzak.

—Guk medikuok badugu hori baino metodo hobea —esan zuen Fettesek—. Hildako adiskide bat atsegin ez dugunean, disezioa egiten diogu.

Macfarlenek begirada jaso zuen bat-batean, txantxa hura ulergaitza balitzaio bezala.

Arratsaldea aurrera joan zen. Gray-k, hori baitzen arrotzaren izena, haiekin afaltzen geratzeko gonbita egin zion Fettesi, eta eskatu zuen oturuntza hain bikainarekin taberna osoa jarri zuen zalapartan; dena amaitu zenean, kontua ordaintzeko agindu zion Macfarlaneri. Berandu zen bereizi zirenean. Gray delako hura hordi-hordi egina zegoen. Macfarlane, amorruek berak mozkorraldia aienaturik, xahuarazi zioten dirua eta jasan behar izan zituen mespretxuak irensteko ahaleginetan ari zen. Fettes, buru barruan hainbat likore kantuan zituela, itzulinguruka eta pentsamendua lotan iritsi zen etxera. Hurrengo egunean Macfarlane ez zen eskolan azaldu, eta Fettesek irribarre egin zuen bere kolporako, Gray jasanezinaren konpainian imajinatu baitzuen oraindik tabernaz taberna. Irteteko orduak jo bezain laster, batetik bestera ibili zen bezperako tabernakideen galdezka. Ez zituen, hala ere, inon topatu; hortaz, goiz itzuli zen bere gelara, garaiz oheratu zen, eta zintzoen loak hartu zuen.

Goizaldeko lauretan ohiko seinaleak esnarazi zuen. Atera jaitsi, eta harri eta zur gelditu zen Macfarlane topatzean, kalesarekin eta, kalesa barruan, hain ongi ezagutzen zituen mamu itxurako fardel luze horietako batekin.

—Zer? —egin zion oihu—. Bakarrik ibili al zara? Nola moldatu zara?

Baina Macfarlanek zakarki isilarazi zuen, eta eginbeharrarekin laguntzeko eskatu zion. Hilotza eskaileran gora igo eta mahai gainean etzan zutenean, alde egiteko keinua egin zuen Macfarlanek lehenbizi. Gero, gelditu, eta zalantzatan zebilela zirudien.

—Hobe izango duzu aurpegia ikustea —bota zion orduan, ahotsean tentsio puntua nabari zitzaiola—. Hobe izango duzu —errepikatu zuen, Fettes adi-adi begira geratu baitzitzaion, harriturik.

—Baina non, eta nola, eta noiz aurkitu duzu hau? —esan zion oihuka besteak.

—Ikusi aurpegia —izan zen erantzun bakarra.

Fettes begiratu ez begiratu zegoen: zalantza arraroek hartu zuten. Mediku gaztearengandik hilotzarengana joan zitzaion begirada, eta atzera berriz harengana. Azkenean, zirkin batez, eskatzen zitzaiona egin zuen. Begiek topatu zuten ikuskizuna ia espero zuen, eta, hala ere, zirrara latza eragin zion. Orain ikustea, heriotzaren zurruntasunak gogortuta eta zakukizko bilgarri latz hartan biluzik, bezperan taberna bateko atarian ongi jantzita eta bapo afalduta utzi zuen gizona, kontzientziaren izuetako batzuk esnatzea zen, baita Fettes kaskarinarentzat ere. Ezagutu zituen bi pertsona mahai izoztu haietan etzanik topatu izana cras tibi bat zen beretzat, oihartzun errepikatuetan ariman hedatzen zitzaiona. Hauek, hala ere, bigarren mailako gogoetak besterik ez ziren. Kezka nagusia Wolferi zegokiona zen. Tamaina horretako erronka bati aurre egiteko prestatuak ez zegoenez, ez zekien lagunari aurpegira nola begiratu ere. Ez zen ausartzen haren begiradarekin topo egitera, eta ez zuen ez hitzik ez ahotsik ezer esateko.

Macfarlanek berak egin zuen lehen urratsa. Atzetik lasai hurbildu, eta sorbaldan jarri zion eskua, emeki baina irmo.

—Richardson —esan zuen—, har dezakezu burua zuretzat.

Richardson ikasle bat zen, gorpu-atal horrexen gogoz luzaro egona zena disezioa egiteko. Ez zuen erantzunik jaso, eta hiltzaileak aurrera jarraitu zuen:

—Negozioaz ari garenez, ordaindu egin behar didazu; zure kontuek, dakizun bezala, koadratu egin behar dute.

Berearen antz izpirik ere ez zuen ahotsa atera zitzaion Fettesi:

—Zuri ordaindu! —esan zuen oihuka—. Ordaindu, honegatik?

—Bada, bai, jakina ordaindu behar didazula. Inondik ere, eta diozuna diozula, ordaindu egin behar didazu —esan zion itzulian besteak—. Ni ez naiz ausartzen zuri doan ematera, zu ere ez ausartu niri ez ordaintzera: biok estutasunean jarriko gintuzke horrek. Hau Jane Galbraithena

bezalako beste kasu bat da. Zenbat eta gehiago diren oker eginiko gauzak, areago jokatu behar dugu zuzen eginak balira bezala. Non jasotzen du dirua K zaharrak?

—Hor —erantzun zuen Fettesek, eztarria laztuta, izkinan zegoen armairu bat seinalatuz.

—Emadazu giltza, orduan —esan zuen besteak patxadatsu, eskua luzatuz.

Zalantza une baten ondoren, patua jokatu zegoen. Giltza hatz artean sentitu zuenean, Macfarlanek ezin izan zuen menderatu nerbio-tik bat, berealdiko lasaituaren adierazgarri hutsal bat zena. Armairua ireki zuen, konpartimentu batetik idazluma, tinta eta koaderno bat atera zituen, eta tiradera batean zegoen dirutik parada hartarako behar zena apartatu zuen.

—Orain, entzun —esan zuen—: egina dago ordainketa, zure borondate onaren lehen froga, zure segurtasunerako lehen urratsa. Bigarren batekin errematatu behar duzu hau orain. Erregistra ezazu zure koadernoan, eta deabruari berari aurre egiteko gauza izango zara orduan.

Hurrengo segundoak pentsamendu-estira hutsa izan ziren Fettesentzat, baina bere izu-ikarek neurria hartzerakoan, hurbilen zuenak irabazi zuen. Etorkizuneko zernahi zailtasun ongi hartuko zuen kasik, une hartan Macfarlanerekin liskar bat ez izatekotan. Denbora hartan guztian berekin eramanean zuen kandela utzi, eta esku sendoz idatzi zituen transakzioaren data, mota eta zenbatekoa.

—Eta orain —esan zuen Macfarlanek—, guztiz bidezkoa da irabazia zuk poltsikoratzea. Nik jaso dut dagoeneko nire parte. Izan ere, eskarmentu handiko gizon batek zorte pixka bat baldin badu, aparteko txelin gutxi batzuk etortzen zaizkio sakelara. Lotsatzen naiz honetaz jarduteaz, baina jokabide-arau bat dago horrelakoetan: ez da besteak gonbidatzen ibili behar, ez da eskola-liburu garestirik erosi behar, ez da aspaldiko zorrik kitatu behar; maileguan hartu behar da, ez maileguan eman.

—Macfarlane —hasi zen Fettes, oraindik zakar antzean— urka-bilurra jarri dut lepoan zuri mesede bat egiteko.

—Niri mesede bat egiteko? —egin zuen oihu Wolfek—. Bai zera! Nik ulertzen dudanez, zeure buruaren defentsan egin behar zenuen huraxe besterik ez duzu egin. Demagun arazoak ditudala, zer gertatuko litzaizuke zuri orduan? Bigarren aferatxo hau lehenengoaren iturri beretik dator, argi eta garbi. Gray jauna Galbraith andereñoaren jarraipena da. Ezin zara hasi, eta gero gelditu. Hasten bazara, hasi bezala jarraitu behar duzu; horixe da egia. Ez da atsedenek gaiztoentzat.

Belztura sentipen izugarri batek eta patuak eginiko txakurkeriak harrapatu zuten ikasle dohakabearen arima.

—Jainko maitea! —esan zuen oihuka—. Baina zer egin dut nik, ba? Noiz hasi naiz ni ezertan? Irakasle laguntzaile bihurtzea, ongi pentsatuta... zer oker dago horretan? Servicek nahi zuen postu hori; Servicek lor zezakeen. Egongo ote zen bera orain ni nagoen atakan?

—Nire adiskide maitea —esan zuen Macfarlanek—, umemokoa ematen duzu! Zer kalte etorri zaizu, ba? Zer kalte etortzen ahal zaizu mihiari eusten badiozu? Ez al dakizu nolakoa den bizitza? Bi tropa klase gaude hemen: lehoiak eta ardiak. Ardia bazara, mahai horietan etzanda bukatuko duzu, Grayk edo Jane Galbraithen bezala; lehoia bazara, biziko zara, eta zaldi bat gidatuko duzu, nik bezala, K-k bezala... adimen edo adore pixka bat duen edonork bezala. Hasieran zalantzak izaten ditu batek. Baina begiraiozu K-ri! Nire adiskide maitea, zu azkarra zara, baduzu kuraia. Gogoko zaitut, eta K-k ere gogoko zaitu. Ehizaren buru izateko jaioa zara; eta agintzen dizut, nire ohorearen eta nire eskarmentuaren izenean, hemendik hiru egunera txorimalo hauei guztiei irri egingo diezula, eskola-ume batek komedia bat ikustean irri egiten duen bezalaxe.

Eta hitz hauek esanda, Macfarlanek alde egin zuen, eta bere kalesa hartuta kalezuloan gora joan zen, egunsentia baino lehen ezkutuan jartzeko. Fettes bakarrik geratu zen orduan, bere arrangurekin. Ohartu zen zer-nolako arrisku penagarritan sartu zuten. Ezin adierazizko etsipenez ikusi zuen bere ahulkeriak ez zuela mugarik, eta, jaitsi zela, amore ematearen amore emanez, Macfarlaneren patuaren bitartekari izatetik haren gaizkide ordainpeko eta babesgabe baten mailara. Zeukan guztia emango zuen une hartan apur bat ausartagoa izateagatik, baina burutik pasa ere ez zitzaion egin ausarta izan zitekeenik ere. Jane Galbraithen sekretuak eta erregistroan idatzi zuen ohar madarikatuak itxi zioten ahoa.

Orduak aurrera joan ziren, eta iritsi zen eskola ordua; Gray gizagaixoaren gorputz-atalak banatu zituzten batzuen eta besteen artean, eta ezertxo ere esan gabe jaso zituzten guztiek. Richardson gustura geratu zen burua eman ziotenean, eta, eskola amaieran txilinat jotzerako, Fettes pozak zorutzen zegoen, oharturik noraino iritsiak ziren jada segurtasunerako bidean.

Beste bi egunez jarraitu zuen ikusten, gero eta bozkario handiagoz, guztia maskaratzeko prozesu ikaragarri hura.

Hirugarren egunean azaldu zen Macfarlane. Gaixorik egon zela esan zuen, baina ikasleak gidatzeko erabili zuen indarrarekin berdindu zuen galdutako denbora. Richardsoni luzatu zizkion, bereziki, laguntza eta aholku baliotsuenak, eta, irakaslearen laudorioek adoreturik, asmo goranahien sukarrak hartu zuen hura, eta eskumenean ikusi zuen jada domina.

Astea amaitu aurretik betea zegoen Macfarlaneren iragarpena. Beldurra mendean hartua zuen Fettesek, eta ahantzia bere zitalkeria. Oilartzen hasi zen bere adoreari zegokionez, eta halako moduan zuen buruan antolatua istorioa, non harrotasun ergel batez ekarri baitzitzakeen gogora gertakari haiek. Gaizkidea ez zuen oso maiz ikusten. Elkartzen ziren, jakina, eskolako arduren gorabeheretarako, eta batera jasotzen zituzten K jaunaren aginduak. Noizean behin,

hitz bat edo beste egiten zuten bakarka, eta Macfarlane bereziki adeitsu eta atsegin agertzen zitzaion, hasi eta buka. Baina nabarmena zen bion sekretuaren inguruko edozein aipamen saihesten zuela; eta are Fettesek xuxurlatu zionean lehoien patuaren aldeko hautua egin zuela eta ardien aldekoa baztertu, keinu bat besterik ez zion egin, irribarretsu, isilik egon zedin.

Azkenean iritsi zen egokiera bat, bikotea beste behin elkarrekin estuago aritzera eraman zuena. K jaunak gorpuak eskas zituen berriro; ikasleak haien eske zeuden, eta irakaslearen xedeetako bat zen beti ongi hornituta egotea. Garai horretan berean izan zuten Glencorseko landa-hilerrian gertatu behar zuen ehorzketa baten berri. Denboraren joanak ez du asko aldatu leku hura. Bidegurutze baten ondoan kokatua zegoen orduan, orain bezala, edozein bizilekuren ikusmiratik kanpo eta sei zedroren hostaila atzean erabat ezkutatua. Inguruko muinoetako ardien marrakak, alde banatara zeuden bi errekatxoak —harribil artean ozen kantari bata, urmael batetik besterako jario isilean bestea—, haizearen astindua basagaztainondo zahar loratuetan, eta, zazpi egunez behin, ezkilaren hotsa eta xantrearen doinu zaharrak, horiek ziren nekazari giroko eliza haren inguruan isiltasuna asaldatzen zuten hots bakarrak. "Berpiztailearentzat" —garai hartako ezizena erabiltzeko— ez ziren oztopo debozio tradizionalaren ezin urratuzko arauak. Haren negozioaren parte zen mespretxatzea eta profanatzea hilobi zaharretako bolutak eta tronpetak, fededun eta hiletarien oinek higatutako bidexkak, eta atsekabetuen maitasunezko eskaintza eta idazkunak. Nekazari giroko auzoek, non maitasuna ohikoa baino irmoagoa den eta non parrokia bateko gizarte osoa odolezko edo adiskidantzazko loturek batzen duten, erakarri egiten zuten hilotz-lapurra, errespetu naturalak aldenarazi beharrean, haietan aritzeak eskaintzen zuen erosotasuna eta segurtasuna zela eta. Oso bestelako iratzartze baten itxaropen pozgarrian lur emandako gorputz haiei, palaren eta hondeaitzurraren berpizte presatu eta lazturaz beterikoa etortzen zitzaien, farol argipean. Hilkutxa bortxatu eta hil-mihisea zarratatzen zuten, eta gorpuzki triste haiek zakukiz beztitu eta ilargi argirik gabeko bidezidorretan hara eta hona ordutan ibili ondoren, duineztasunaren gradu gorenera eramaten ziren azkenean, gazte ahozabalez beteriko ikasgela baten aurrera.

Bi putre amil daitezkeen bezala hilzorian den ardi baten gainera, halaxe zihoazen Fettes eta Macfarlane hilobi bati erasotzera azken atsedenleku berde eta isil hartan. Nekazari baten emaztea, hirurogei urtez bizi izan zen emakume bat, gurin ona egitea eta solasgai elizkoiak izatea besterik ezagutzen ez zitzaiona, gauerdian bere hobitik erauztera zihoazen, eta eramatera, hilik eta biluzik, beti jaietako arropa onenekin joateko ohorea egin zion hiri urrunera. Senitartekoen ondoan zuen lekua hutsik geratzera zihoan azken judizioko eguna arte; haren gorputz-atal errugabe eta ia agurgarriak erakusgai jartzera zihoazen, anatomistaren jakin-min berriena asetzeko.

Arratsalde beranduan ekin zion bideari bikoteak, beren kapetan ongi bildurik eta sekulako mozkorraren kargarekin. Atertu gabe ari zuen: euri hotz, sarri eta zigortzailea. Tarteka haize bafada bat harrotzen zen, baina suilka ari zuen euriak geldiarazi egiten zuen. Mozkorraldiarekin ere, triste eta isilik egin zuten bidea Penicuik-eraino, han igaro behar baitzuten gaua. Geldialdi bat egin zuten, eliz ataritik gertu zegoen sasiarte trinko batean lanabesak ezkutatzeko, eta



beste bat Fisher's Tryst-en, beheko suaren aurrean trago bat hartzeko, whisky zurrutadak baso bat garagardorekin aldizkatuz. Bidaldiaren amaierara iritsi zirenean, kalesa aterpean sartu zuten, zaldiari jatena eman zioten eta goxatu zuten, eta bi mediku gazteak jangela pribatu batean eseri ziren ostatuak eskain zitzakeen afaririk eta ardorik onenak hartzera. Argiek, beheko suak, leihoaren kontra jotzen zuen euriak, egiteko zuten lan hotz eta zentzugabeak bizigarria eransten zioten otorduak ematen zien gozamenari. Baso bakoitzarekin hazi egiten zen beren arteko atxikimendua. Bat-batean, Macfarlanek urrezko txanpon mordoxka bat jarri zuen lagunaren eskuan.

—Esku-erakutsi bat —esan zuen—. Adiskide artean, honelako tratu txikiak pipa pizteko sua eskuz esku bezain arin mugitu beharko lirateke.

Fettesek poltsikoan sartu zuen dirua, eta gogotsu txalotu zuen iritzi hura.

—Filosofo hutsa zara —esan zion oihuka—, eta ni artaburu hutsa zu ezagutu zintudan arte. Zuk eta K-k bion artean gizonduko nauzue, arraioak ez badu!

—Egingo dugu, bai, horixe! —txalotu zuen Macfarlanek—. Gizondu? Benetan diotsut: gizona izan behar zen aurreko goiz hartan niri laguntzeko. Badira berrogei urteko gizaseme koldar askoak, handiak eta liskarzaleak izanagatik ondoezik jarriko zirenak hildako hura ikusitakoan; baina zu ez, zuk eutsi egin zenion zeure buruari. Beha egon nintzaizun.

—Baina zergatik ez ba? —harrotu zen orduan Fettes—. Ez zen nire afera. Alde batera egin banu, ez nuen ezer irabazteko nahasmendua besterik, eta bestera, berriz, zure esker ona izango nuen, ez al da hala?—. Eta poltsikoa astindu zuen, urrezko txanponei txin-txin eginaraziz.

Macfarlaneri halako ezinegon puntu bat piztu zitzaion hitz desatsegin haiek entzutean. Damutu egin zitzaion, agian, bere kide gazteari hain era arrakastatsuan irakatsi izana, baina ez zuen hitza hartzeko egokierarik izan, besteak ahobero jarraitu baitzuen ozenki:

—Beldurrik ez izatea da garrantzizkoena. Orain, zure eta nire artean: ez dut urkaturik amaitu nahi, zentzuzko gauza da hori, baina, Macfarlane, ez naiz ni erretolika sasimoraletarako jaioa. Infernua, Jainkoa, deabrua, ongia, gaizkia, bekatua, krimena eta bitxikeria-galeria zahar horrek guztiak... mutikoak beldur ditzake agian, baina zu eta ni bezalako eskarmentu handiko gizonak mespretxatu egiten dituzte. Topa, Grayren oroimenaren alde!

Berandu samar zen ordurako. Haiek agindu bezala, ate ondora ekarri zieten kalesa, bi farolek argi distiraz egiten zutela, eta gizon gazteek kontua ordaindu eta bideari ekin zioten. Peeblesera zihoazela azaldu zuten, eta harako noranzkoa hartu zuten hiriko azken etxeetatik urrun egon ziren arte; gero, farolak itzalita, ibilbidean atzera egin, eta ostera Glencorsera zeraman bidezidor bat hartu zuten. Haien joanaren hotsa besterik ez zen entzuten, eta

aterrunerik gabeko euri erauntsi zaratatsuarena. Ilun baino ilunago zegoen; tarteka, ataka zuri batek edo hormaren bateko harri zuri batek gidatzen zituen han-hemenka gauean barrena, baina, belztura ozen haren erdian, oin-urratsean eta ia itsuka topatu behar izan zuten, zatirik handiengan, helmuga solemne eta isolatu hartara eramango zituen bidea. Hilerriaren auzoa zeharkatzen duen baso hertsian argi-izpi txikien ere ez zegoen, eta pospolo bat piztu behar izan zuten kalesaren faroletako bat berriz izekitzeko. Honela iritsi ziren, arbolei zerien tanta azpian eta itzal erraldoi eta higikariz inguratutik, haien zeregin sakrilegoen lekura.

Bazuten biek ere eskarmentua horrelako kontuetan, indartsu astintzen zuten pala, eta lanean hogeita minutu eskas aritu ondoren jaso zuten hilkutxaren tapa gainean karraka sor bat entzuteko saria. Une horretan berean, Macfarlanek harri batekin min hartu eta buruz gain bota zuen axolagabeki. Hilobia, zeinean ia sorbaldaraino sartuak baitzeuden ordurako, hilerriko zelaiaren hegitik gertu zegoen, eta, lanean argi hobea izateko, kalesaren farola arbola baten kontra bermatu zuten, errekarra jaisten zen pendiz aldapatsuen ertz-ertzean. Halabeharrik itu-itu asmatu zuen harriarekin. Ondoren, beira hautsien zarata entzun zen; iluntasuna egin zitzaion; txandakako soinu sor eta zoliek aditzera ematen zuten farola pendizean behera saltoka zihoala eta tarteka arbolak jotzen zituela. Harri bat edo bi, farolak bere ibilbidean askatu zituenak, kinki eta kanka joan ziren haren atzetik haran estu sakonean barrena; eta gero, isiltasuna nagusitu zen berriz ere, eta orobat iluntasuna; eta belarria ezin gehiago zorrotzuta ere, ez zen ezertxo ere entzuten, ez bazen euria landa zabaleko miliatan barrena, haizearen erritmoan orain eta atertu gabe gero.

Hain gutxi falta zuten lan gorrotagarri hura amaitzeko, zuhurrago iritzi zioten ilunpean burutzeari. Hilkutxa lurpetik atera eta tapa hautsi zioten, hilotza zaku blaituan sartu eta bien artean garraiatu zuten kalesara: bat gainera igo zen gorpuari bere lekuan eusteko, eta bestea, zaldiari ahokotik helduta, hormak eta zuhaixkak haztatuz joan zen Fisher's Tryst ostatu pareko bide zabalagora iritsi ziren arte. Han bazen distira ahul, lauso bat, egun-argia balitz bezala agurtu zutena, eta haren laguntzaz, urratsa biziari zioten zaldiari eta triki-traka hartu zuten, poz-poz, hirirako bidea.

Hezurretaraino mela-mela egin ziren aurreko lanetan, eta orain, gurtarrasto sakonen artean kalesak jauzi egitean, bien erdian bermaturik zeramaten izaki hura oraintxe erortzen zen bataren gainera, eta oraintxe bestearenera. kontaktu nazkagarri hura errepikatzen zen aldiro, bietako bakoitzak ahalik eta azkarren aldentzen zuen instintiboki, eta, prozesu hura normala izanagatik ere, bi kideak beren onetik ateratzen hasi ziren. Macfarlanek gustu txarreko txantxa bat egin zuen nekazariaren emazteari buruz, baina indarrik gabe atera zen haren ezpainetatik, eta Fettesek besterik gabe botatzen utzi zion, erantzun gabe. Zama estrainio hark alderik alde danbaka jarraitzen zuen; oraintxe etzaten zuen burua haien sorbalda gainean, konfiantzan baleude bezala, eta oraintxe dantzatzen zen hormaturik zakuki blaitua haien aurpegi aurrean. Izozten hasi zen, pixkanaka, Fettesen gogo. Fardelari arretaz begiratu, eta, zergatik ez zekiela, lehen baino handiagoa iruditzen zitzaion. Ibilbide osoan, kalesaren martxak landetxeetako zakurrak izan zituen bidelagun, berdin hurbiletik nola urrundik, beren ulu tragikoekin, eta

gaztearen barruan haziz joan zen mirari makur bat egin zelako susmoa, hilotzari aldaketa izendaezin bat gertatu zitzaiolako errezeloa, zakurrak uluka demoniozko zama haren beldurrez ari zirelako ustea.

—Jainkoarren! —esan zuen, hizketan hasteko esfortzu handi bat eginez—. Jainkoarren! Piztu dezagun argi bat!

Macfarlane ere, zirudienez, antzerako burutazioek erasanda zegoen, zeren, erantzunik eman ez zion arren, zaldia gerarazi, bridak lagunari pasatu, kalesatik jaitsi, eta geratzen zitzaien farola pizteari ekin baitzion. Ordurako, Auchenclinnya daraman bidegurutzeraino besterik ez ziren iritsi. Euria goi eta behe ari zuen oraindik, Uholde Handia berriz baletor bezala, eta ez zen batere erraza sua piztea hezetasunezko eta iluntasunezko mundu hartan. Noizbait ere gar urdin dardartia metxara aldatu zutenean, eta hura hedatzen eta distiratzten hasi ahala kalesaren inguruan argitasun lanbrotsuzko zirkulu zabal bat jariatu zenean, orduan ikusi ahal izan zuten elkar bi gazteek eta baita beraiekin zeramaten izaki hura ere. Euriaren eraginez, estaltzen zuen hilotzaren soslaira moldatua zegoen zakuki latza; burua ongi desberdintzen zen soinetik, eta sorbaldak argi eta garbi nabarmentzen ziren; aldi berean espektrala eta gizatiarra zen zerbaitek iltzatzen zizkien begiak mamu itxurako bidaidearen gainean.

Denbora puska batez Macfarlane zirkinik egin gabe egon zen, farola eskuetan. Izu izendaezin batek bildu zion gorputza Fettesi, maindire busti baten antzera, eta tinkatu zion aurpegiko azal zurbila; zentzurik ez zuen ikara bat, ezinezkoa denarenganako laborri bat zihoakion garunetan gora. Erloju-orratzaren kolpe bat gehiago, eta hitz egiten hasiko zen, baina lagunak hartu zion aurrea.

—Hau ez da emakume bat —esan zuen Macfarlanek, ahots isilean.

—Emakume bat zen igo genuenean —xuxurlatu zuen Fettesek.

—Eutsi farolari —esan zuen besteak—. Aurpegia ikusi behar dut.

Eta Fettesek farola hartu zuenean, lagunak zakuaren lokarriak askatu zituen eta estalkia kendu zion buruari. Farolak oso garbi argiztatu zituen ezagunegi zitzaizkien hazpegi ilun eta ongi eratu batzuk, bizarra egin berria zuten masail batzuk, begitarte hura sarri ikusia baitzuten bi gazteek ametsetan. Garrasi basa batek urratu zuen gaua; alde banatatik egin zuten salto biek galtzadara; farola erori, hautsi eta itzali egin zen; eta zaldia, ezusteko zalaparta harekin izaturik, jauzika hasi eta galopan abiatu zen Edinburgo aldera, kalesako bidaiari bakar gisa berekin zeramala disezioa aspaldi egin zioten Gray haren hilotza.